



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

DONOSTIARRA
2040

TOP
era

00/

**SEGURTASUNA,
BIZIKIDETZA ETA
GIZARTE-KOHESIOA**

Dokumentu honen prestaketan, Donostiako Udaleko Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritzak eta Udaltzaingoko Zuzendaritzak, eta Jone Unanuek, zuzenbideko adituak, parte hartu dute.

1. Sarrera eta aurrera begirako esparrua	4
1.1. Gobernantza kolaboratiboko prozesuaren oinarriak.....	4
1.2. Atalburutzen zeregina, barne-aholkularitza gisa	4
1.3. 5. mahaiaren zeharkakotasuna: segurtasuna oinarrizko baldintza gisa	5
2. Jurisprudentziaren diagnostikoa eta bilakaera soziala (1991-2025)	6
2.1. Arlo zibilaren bilakaera eta erakundeen bitartekaritza	6
2.2. Bilakaera penala eta internazionalizazioaren eragina	6
2.3. Genero-indarkeria: teknologia berrien bidezko delitu-dinamika berriak agertzea	7
2.4. Ondarearen aurkako berrerortze anitzaren azterketa teknikoa	8
2.5. Usurpazioa eta arma zuriak eramatearen arazoa	9
3. Segurtasun integralaren eta hiri-erresilientziaren paradigma.....	11
3.1. Segurtasun integralaren Europako kontzeptua (Safety eta Security)	11
3.2. Babesa taldea, zeharkako koordinaziorako tresna	11
3.3. Hiri-erresilientzia eta aurea hartzeko gaitasun teknikoa	12
3.4. Autobabesaren kultura: herritarren prestakuntza eta gaikuntza... 13	
4. Bizikidetza komunitarioa eta gizarte-kohesioa auzoetan, segurtasunaren oinarri gisa	14
4.1. Gatazka txikien desjudizializazioa, auzo-bitartekaritzaren bidez	14
4.2. Auzo-elkarteak, bizikidetza-hausturak prebenitzeko sentore gisa.....	14
4.3. Kolektibo zaugarrien kohesio- eta babes-politikak.....	15
4.4. Espazio publikoaren gobernantza eta erabilera partekatua.....	16
5. Deliberazio-prozesurako azken gogoetak	17

Sarrera eta aurrera begirako esparrua

1.1 Gobernantza kolaboratiboko prozesuaren oinarriak

Donostia hiri anitza da, irekia eta herritarren partaidetzaren esparruan tradizio handia duena. Hiriko bizi-kalitatea espazio publikoko segurtasunaren mende egoteaz gain, bizilagunen, erakundeen eta gizarte-sarearen arteko konfiantzaren mende ere badago. Esparru horretan, bizikidetza eta gizarte-kohesioa hiri-segurtasunaren eta ongizate kolektiboaren funtsezko ataltzat jo behar dira.

2040eko Donostia eraikitzeko, diseinua ezin da inprobisazioaren bidez egin, ezta egungo joeren proiektio lineal hutsaren bidez ere. Gaur egungo hiri-inguruneek eraldaketa-dinamika azkarrei egin behar diete aurre. Dinamika horien ezaugarriak dira konplexuak direla, arrisku-faktoreak elkarren artean lotuta daudela eta gizarte-, teknologia- eta ingurumen-errealitate berriak sortzen ari direla. Testuinguru horretan, hiri-esparruko aurrera begirako ikuspegiaren eta elkarlaneko gobernantzaren ariketa zorrotza da Donostiarra 2040 proiektua, eta hurrengo hamarkadetako hiri-ereduaren oinarri estrategikoak definitzea du helburu nagusi.

Elkarlaneko gobernantzak berekin dakar kudeaketa publiko bertikalaren eredu tradizionalak gainditzea, hausnarketarako, baterako erabakirako eta erantzunkidetasunerako gune baterantz aurrera egiteko. Foro hau ez da iradokizunen postontzi edo kontsulta publiko informal gisa sortu, baizik eta eztabaida-organo gisa, non hainbat kolektibotako ordezkariak (hainbat gizarte-sentsibilitatekoak denak) eta udal-zerbitzu teknikoek parte hartzen duten. Helburu nagusia da diagnostiko partekatu bat eraikitzea, udal-erakundeak tentsioei aurrea hartu ahal izateko, tentsio horien ondorioz bizikidetza-hausturak edo krisi operatiboak sortu baino lehen. Berehalako erreakzioaren ordezkari, aurreikuspena eta proaktibitate ezarri behar dira: aldaketa globalen inpaktuak xurgatzeko gai den hiri-egitura finkatu behar da, betiere hiriaren nortasuna eta barne-kohesioa galdu gabe.

1.2 Atalburutzen zeregina, barne-aholkularitza gisa

Donostiarra 2040 ekimenaren engranje metodologikoaren barruan, Donostiako Udaleko atalburutzek funtsezko eginkizun bat hartzen dute beren gain, nahitaezko barne-aholkularitzaren funtzioak hartzen baitituzte beren gain. Zeregin hori gauzatzeko, udalerriko arduradun teknikoek beren ezagutza aditua, eguneroko kudeaketan duten esperientzia eta ikuspegi estrategikoa erabili behar dituzte, hain zuzen ere herritarren foro honetako eztabaidak gidatzeko. Parte-hartze teknikoari esker bermatzen da eztabaida ez dadila desbideratu utopia gauzaezinetara edo materia-, aurrekontu- edo eskumen-bideragarritasunik gabeko planteamenduetara.

Atalburutzen eginkizuna, beraz, herritarren nahien eta toki-administrazioaren errealitate operatiboaren arteko zubi estrategiko gisa jardutea da. Teknikariei dagokie proposamenen egingarritasuna ebaluatzea, egungo antolamenduak ezarritako muga juridikoei buruz

ohartaraztea, eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide materialak kontuan hartzea, eta epe luzera planteatutako helburuak zerbitzu bakoitzaren plan sektorialetan modu harmonikoan txertatu ahal izango direla ziurtatzea. Barne-aholkularitza horrek bermatzen du prozesuaren ondoriozko azken dokumentua instituzionalki defendagarria, teknikoki sendoa eta ekonomikoki bideragarria izatea, eta beraz, ekintza politikorako ibilbide-orri errealista bihurtzen da.

1.3 5. mahaiaren zeharkakotasuna: segurtasuna oinarrizko baldintza gisa.

5. mahaia, Segurtasunari, Bizikidetzari eta Gizarte Kohesioari buruzkoa, Donostiarra 2040ko hiri-estrategia osoaren ardatz nagusia da eta beraz, mahaiaren izaera zeharkakoa da. Segurtasuna esparru isolatutzat jotzeko joera dago; gai oso sektorialtzat jotzen da, eta polizia-kidegoen ekintza prebentibora/erreaktibora edo ezbeharren eta larrialdien aurreko erantzun teknikora mugatzen da. Esan beharra dago ikuspegi hori ez dela zuzena. Hala ere, aurrera begirako hiriaren ikuspegiak erakusten du segurtasun integrala aldeztu aurreko eta ezinbesteko baldintza dela komunitate baten garapen ekonomiko, kultural eta sozial erabatekoa eraikitzeko.

Bertako biztanleen eguneroko lasaitasuna, espazio komunitarioen integritatea eta azpiegiturak ingurumen- edo giza arriskuetatik babestea bermatzen ez duen hiri ingurune kaltebera eta ez oso erakargarri bihurtzen da. Talentua, inbertsio ekonomikoa, berrikuntza eta komunitate-bizitza konfiantza- eta egonkortasun-esparru batean soilik lor daitezke. Segurtasunik ezaren pertzepzioa areagotzen denean edo gizarte-sarea hausten denean, espazio publikoak husten dira, tokiko merkataritza ahuldu egiten da eta isolamendu- eta bazterketa-dinamikak sortzen dira. Hori dela-eta, segurtasun-, bizikidetzaren- eta kohesio-politikak modu bateratuan jorratu behar dira. Kontua ez da neurri zuzentzaileak aplikatzea, gatazka edo larrialdia dagoeneko gertatu denean, baizik eta, bere konfigurazio sozial eta teknikoagatik, arriskuak minimizatu eta erresilientzia kolektiboa sustatuko duen hiri-ingurune bat diseinatzea, Donostiako ongizatearen oinarri gisa.

Gaia sakonduz, Udalaren eskutik ikuspegi integral bat aplikatzen bada, bertan prebentzioa, gizarte-kohesioa eta inklusioa txertatu beharko lirateke, eta benetako koordinazioa bermatu beharko litzateke, bai udal-atalen artean, bai gainerako erakundeekin. Orientazio hori herritarren segurtasunaren ikuspegiarekin bat etorriko litzateke, ikuspegi publiko eta dimentsio anitzeko gisa, eta bizikidetzaren baketsuari eta giza eskubideei lotua.

Jurisprudentiaren diagnostikoa eta bilakaera soziala (1991 - 2025)

2.1 Arlo zibilaren bilakaera eta erakundeen bitartekaritza

Donostiaren egungo erronkak ulertzeko, azken hamarkadetako ibilbidea aztertu behar da adierazle instituzional zorrotzen bidez. Justizia Administrazioak probintzian eta, zehazki, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak garatutako jarduerari begiratzen badiegu, primerako aukera ematen digute hiriko gizarte-egituraren eraldaketak aztertzeko. Azterketa historikoa egin ondoren, ikusi da auzi zibilek argi eta garbi islatzen dituztela krisi ekonomikoak, familia-mutazioak eta herritarren estamentuek jasaten dituzten tentsioak.

1990eko hamarkadan, industria-birmoldaketen eta garai hartako krisi ekonomikoen ondoriozko auziek eragin handia izan zuten ordena zibilean, eta, horren ondorioz, nabarmen areagotu ziren diru-errekamazioen eta ez ordaintzeagatiko utzarazpen-prozeduren kopuruak. Prozesu horiek zuzenean jarri zuten agerian faktore ekonomikoek eragina zutela donostiar familien egonkortasunean. 2000. urtetik aurrera, espektro zibilak beste mutazio bat izan zuen: hipoteka-maileguen eta finantza-produktuen klausulei lotutako auziak azaleratu ziren, horrek zeharka eragin zien partikularrei eta tokiko enpresa-sareari, eta horrek agerian utzi zuen kontsumo-gizartean zaugarritasun-modu berriak zeudela.

Aldi berean, familia-zuzenbidearen arloko prozeduretan ikusi da familia-ereduak aldatu direla eta pertsonen arteko harreman-modu berriak agertu direla. Dibortzioen gorakadak eta eremu pribatuko bizikidetza-krisiek organo judizialen saturazioa eragin zuten, eta, horren ondorioz, ohiko prozesu judizialetik kanpoko konponbide alternatiboak bilatu behar izan ziren. Testuinguru horretan, funtsezko garrantzia izan zuen bitartekaritza instituzionalizatzeak, zeina Euskal Autonomia Erkidegoan 1/2008 Legearen bidez formalizatu zen. Lege-tresna horri esker, gatazkan zeuden alderdiek, adituen laguntzarekin, auzitegiek baino oldarkortasun gutxiagoko ingurune batean konpondu ahal izan zituzten desadostasunak, hitzarmen arautzaileetan jasotako akordio lotesleen bidez, hain zuzen. Bitartekaritzaren bidez argi geratu zen tresna hori eraginkorragoa dela pertsonen arteko gatazkek kudeatzeko eta gainera ez dela hain kaltegarria gizarte-kohesiorako; izan ere, lehentasuna ematen zaio adostasunari eta komunitatearen erreparazioari, auzi bidezko erantzunari baino.

2.2 Bilakaera penala eta internazionalizazioaren eragina

Zigor-arloko jurisdikzioa aztertuta, udalerriko segurtasun kolektiboari zuzenean eragiten dioten jokabideen bilakaera nolakoa izan den ikusten da argi eta garbi. Metatutako datu historikoek erakusten dutenez, aldaketa sakona gertatu da delitu-tipologian eta subjektu aktiboen profilean, eta aldaketa hori hertsiki lotuta dago eraldaketa sozioekonomiko globalekin eta Europako hiri ertainen gero eta internazionalizazio handiagorekin.

1990eko hamarkadaren hasieran, ondarearen eta pertsonen aurkako arau-hauste penalek zuzeneko lotura zuten delinkuentzia funtzionalarekin, droga-mendetasunaren eta heroinaren moduko substantzien kontsumo masiboaren ondorioz. Lapurretak, ebasketak eta erasoak tokiko delinkuentzia aurreikusgarriak egiten zituen. Era berean, lesio-delituak edo giza hilketak, baldin eta biktima emakume bat bazen bikote baten esparruan, parametro komunak arabera epaitzen ziren, eta ez zegoen izen edo egitura judizial espezifikorik genero-indarkeriari aurre egiteko. Egileen profilari dagokionez, gehien-gehienak espainiar nazionalitatekoak ziren, eta polizia-burutzetan eta epaitegietan itzultzaileek edo interpreteek esku hartzea oso hondar-fenomenoa zen: estupefazianteen trafikoko operazio handietan erabiltzen ziren batez ere, hain zuzen ere Frantzia edo Holanda gisako herrialdeetako polizia-kidegoekin nazioz haraindiko lankidetzan jardun behar zenean.

Gaur egun, delituak ondarearen eta pertsonen aurkako delituen artean banatzen dituen oinarritzko zigor-tipologia formalki antzekoa bada ere, testuinguru soziala eta operatiboa erabat aldatu da. Garrantzi apalagoko ondarearen aurkako delituen kasuan –hala nola ebasketak eta ebasketa arinak–, hainbat nazionalitateko pertsonen eguneroko presentzia dago, bai Schengen Eremukoena, bai hirugarren herrialdeetakoena. Errealitate horrek itzultzaileen presentzia eguneroko premia bihurtu du jardura judizialean eta hiriko polizia-bulegoetan. Delinkuentziaren internazionalizazioaren fenomeno hori ez da aurreiritzien ikuspegitik aztertu behar, aitzitik, tokiko erakundeek aurre egin beharreko lehen mailako erronka teknikotzat jo behar da. Jatorri geografiko eta kulturalen aniztasunaren ondorioz, konplexutasun handia sortzen da identifikazio-mekanismoetan, berrerortze anitzaren kudeaketan eta lankidetzak polizial eta judizialeko tresnen aplikazioan. 2040ko hiri-segurtasunak honako hau eskatzen du: udal-zerbitzuak tokiko sarean jarduten duen delinkuentzia globalizatua kudeatzeko prestatuta egotea, eta, horretarako, informazio-kanal egokituak, hizkuntza-bitartekotza eta estatuko eta nazioarteko agentziekiko koordinazio estua behar dira.

2.3 Genero-indarkeria: Teknologia berrien bidezko delitu-dinamika berriak agertzea

Azken hamarkadetako aurrerapen instituzional garrantzitsuenetako bat babes-esparru espezifiko bat sortzea izan da, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoaren bidez. Arau hori Donostian aplikatzeak, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak abian jartzearekin eta probintzia-auzitegiko atalak espezializatzearekin batera, nabarmen areagotu du instrukzio-prozeduren, epaiketen eta babes-aginduen eskaeren kopurua.

Hazkunde estatistikoki hori ez da zertan ulertu behar erasoen kopuru absolutuaren igoera gisa, baizik eta gizartearen kontzientziatuago egotearen, salatu gabeko delituen kopurua murriztearen eta biktimen erakunde publikoetan konfiantza handiagoa izatearen zuzeneko emaitza gisa. Sistema judizialak aukera eman du lehen eremu pribatuan zokoratuta geratzen ziren edo beharrezko tratamendu espezializatua jasotzen ez zuten txar fisiko eta psikologikoko jokabideak ikusarazteko eta zigortzeko. Hasiera batean, prozedura mota hori biztanleria nazionalaren eta

jatorri latinoamerikarreko biztanleriaren substratu sozial jakin batzuetan kontzentratzen zen batez ere, baina azken datuek erakusten dute kontzientziazioa eta salaketak aurkeztea modu uniformearen hedatzen ari direla hirian bizi diren beste kultura-talde, komunitate eta gutxiengo etniko batzuetara.

Hala ere, genero-indarkeriaren egungo diagnostikoak erakusten du Interneten, telefono mugikorren eta sare sozialen erabilera masiboari lotutako mutazio kezkarri bat dagoela, eta intzidentzia bereziki handia dela gazteen eta nerabeen artean. Ingurune digitalak bikote-harremanen barruan kontrol, menderatze eta jazarpen psikologikoko dinamikak garatzeko espazio berri bihurtu dira. Kokapenak denbora errealean partekatu beharra, sare sozialetako interakzioak kontrolatzea, gailu pertsonaletara baimenik gabe sartzea eta irudi intimoak baimenik gabe zabaltzea normalizatu egin da adingabeen artean. Tratu txarrak eremu birtualera eramateak erakusten du segurtasunaren eta espazio publikoaren ohiko kontzeptuek gainezka egin dutela. Pertsona zaurgarriak babestea ezin da auzoetako kaleak fisikoki babestea bakarrik izan; aitzitik, estrategia horrek esku-hartze integrala eskatzen du, alfabetatze digitala, berdintasun-balioetan oinarritutako hezkuntza eta ziberespazioan ikertzeko eta prebentzioa egiteko gaitasun teknikoaren garapena uztartuko dituen.

2.4 Ondarearen aurkako berrerortze anitzaren azterketa teknikoa

Ondarearen kontrako delitu txikiak behin eta berriz errepikatzeari buruzko kezka dute herritarrek (berrerortze anitza esaten zaio), bereziki Donostiako merkataritza- eta turismo-eremuetan egindako ebasketen inguruan, eta gaur egun hiri-segurtasunari buruzko eztabaidaren ardatz nagusietako bat da hori. Fenomeno horri zorrotasun teknikoak heltzeko eta diskurtso sinplistik saihesteko, ezinbestekoa da berrerortze anitzaren esparru juridikoa aztertzea, bai eta zuzenbide-estatu batean segurtasun juridikoaren printzipioak txertatzen dituen mugak ere.

1/2026 Lege Organikoaren bidez egindako Zigor Kodearen erreformak aldatu egin du ebasketa-delitu arinetan berrerortzearen tratamendu penala, eta erantzun zehatzagoa eman nahi die eragindako toki-administrazioen eta sektore ekonomikoen eskaerei. Ikuspegi juridiko hutsetik, berrerortze anizkoitzaren astungarria aplikatzeko, oso betekizun zorrotzak bete behar dira. Lehenik eta behin, nahitaezkoa da subjektua alde aurretik betearazpen-prozedura batean zigortua izatea, hau da, organo judizial batek emandako epai irmo bat egotea, eta horren aurkako errekurtsorik jartzeko biderik ez egotea. Bigarrenik, izaera bereko egitateengatik gutxienez hiru zigor-epai irmo egon behar dira, hau da, Zigor Kodearen titulu bereko hiru zigor-epai.

Ñabardura hori funtsezkoa da, eta herritarrek eta kudeatzaile publikoek hau ulertu behar dute: berrerortze anitza kontzeptu judiziala da, polizia-aurrekariak izate hutsa ez den zerbait. Udaltzaingoak edo Ertzaintzak aurretik egindako atxilotetak ez dira, berez, elementu baliagarri pertsona ikertuaren zigorra larriagotzeko. Segurtasun juridikoaren printzipioan eta errugabetasun-presuntziorako oinarritzko eskubidean oinarritzen da bereizketa hori. Prozesu judizial formal batek bakarrik ekar dezake zigor irmo bat, betiere Konstituzioan zehaztutako berme guztiekin: arartekogabetasun-, kontraesan- eta defentsa-eskubideak erabat gauzatuz. Baldintza horiek

bermatuta ematen den zigor irmo bat bakarrik da gai ez-zilegien delitu arin baten izaera juridikoa arindu edo larriagotzeko, eta, ondorioz, ezarri beharreko espetxe-zigorra areagotzeko.

Beraz, berrerortze anitzaren aurreko lege-erantzunaren eraginkortasuna ez dago zigor-arauaren idazketaren mende soilik, makineria judizialaren eta polizialaren gaitasun operatibo eta materialaren mende ere badago. Legeak Donostiako kaleetan benetako eragina izan dezan, ezinbestekoa da epaiketa azkarreko prozedurak arintzea ageri-ageriko kasuetan. Horretarako, guardiako epaitegiei eta polizia-buruzagitzei giza ballabide nahikoak eman behar zaizkie, bai eta berehala identifikatzeko tresna teknologikoak eta lapurtutako ondasunak tasatzeko gai diren adituak ere. Egitura material hori gabe, lege-erreforma egin den arren, arriskua dago esparru ez-eraginkor bihurtzeko, zeinak ez duen udalerriaren errealitate kriminala aldatuko.

2.5 Usurpazioa eta arma zuriak eramatearen arazoa

Berrerortze anitzarekin batera, badaude bi fenomeno espezifiko donostiarren segurtasunaren/segurtasunik ezaren pertzepzioan eta auzoetako eguneroko bizikidetzan zuzeneko eragina dutenak: higiezinak legez kanpo okupatzea eta aisialdi-espazioetan eta ekitaldi publikoetan arma zuriak eramatearen fenomeno ugartzea. Bi gai horiek direla eta, argi eta garbi mugatu behar dira udal-eskumenak eta eskumen judizialak, prebentzio-politika eraginkorrak diseinatzeko. Okupazioaren fenomenoari dagokionez, Espainiako ordenamendu juridiko penalak bereizketa argia ezartzen du eragindako higiezinaren izaeran oinarrituta. Alde batetik, bizilekua bortxatzearen delitua dago, eta hori gertatzen da okupazioak pertsona baten etxebizitza legitimoa den higiezin bati eragiten dionean, dela ohiko bizilekua, dela bigarren bizilekua. Kasu horretan, egoitzaren babesak lehentasuna du, Konstituzioan jasota baitago, eta poliziaren esku-hartzea berehalakoa da jabetza jabeei itzultzeko. Bestalde, usurpazio-delitua dago: Zigor Kodean delitu arin gisa araututa dago, bizitoki ez diren higiezinetan indarkeriarik eta larderiarik gabe egiten denean, hala nola abandonatutako eraikinetan, merkataritza-lokaletan edo erakunde juridikoen erabilerarik gabeko jabetzetan.

Historikoki, delitu arintzat jotzen zenez, usurpazioaren epaiketak ohiko bide geldoei jarraitzen zien, eta ez zen gomendatzen husteko kautelazko neurriak hartzea epai irmo bat egon arte. Hala ere, jokabide horiek ugaritu egin direnez eta hiri-ingurune jakin batzuetako auzo-bizikidetzaren degradazioan eragina izan dutenez, jarduteko irizpideak aldatu egin dira. Fiskaltza Nagusiaren jarraibideek eta Prozedura Kriminalaren Legearen 13. artikuluen aplikazioak aukera ematen diete epaitegiei higiezin bat berehala utzarazteko kautela-neurria ezartzea erabakitzeko, betiere egiaztatzen bada titular legitimoaren ondasun juridikoak nabarmen urratu direla eta ordena publikorako arrisku-egoera sortzen dela. Beraz, Udalak arazo hori kudeatzeko, Udaltzaingoaren prebentzio-jarduketak eta gizarte zerbitzurenak koordinatu behar ditu, benetako bizitegi-zaurgarritasuneko egoerei erantzuteko, eta alde batera utzi behar ditu erantzun erreaktibo hutsak.

Azkenik, espazio publikoetan eta gaueko aisialdian arma zuri gehiago egotearen pertzepzioa, hala nola labanak edo objektu ebakitzailak, segurtasun publikoaren erronka bat da, administrazio-eremutik eztabaida penalerara igaro dena. Zigor Kodeak 563. artikuluan zigortzen du debekatutako

armak edukitzea, batez ere arauzko lizentzia eta baimenik gabeko su-armak. Legez, arma zuriak beste delitu batzuk egiteko tresnatzat hartu izan dira, eta astungarri espezifikotzat jo izan dira lapurretetan, erasoetan edo mehatxuetan erabiltzen direnean. Hala ere, kalean laban bat eramatea, delitu bat egiteko erabiltzen ari ez dena, ez da arau-hauste penal bat, arau-hauste administratibo astun bat baizik, Herritarren Segurtasunerako Legeari aurreikusitakoa. Aisia-inguruneetako liskar eta erasoei buruz udalek duten kezkaren aurrean, eztabaida lasai bat jarri da abian, hiriko eremu sentikor jakin batzuetan horrelako armak eramate hutsa penalki tipifikatzearen bideragarritasunaren inguruan. Legegintza-eztabaida hori garatzen den bitartean, udalerriaren jardunak bi esparru hauetan jarri behar du arreta: tokiko segurtasun-indarrek prebentzio-kontrolak areagotu behar dituzte, eta gazteei zuzendurako kontzientziazio-kanpainak egin behar dira, espazio publikoan armak eramateak dituen arriskuei eta administrazio-zehapenei buruzkoak.

Segurtasun integralaren eta hiri-erresilientziaren paradigma

3.1 Segurtasun integralaren Europako kontzeptua (Safety eta Security)

Europako erreferentziazko hiri ertainen plangintza estrategikoa doktrina-aldaketa atzeraezina jasaten ari da. Segurtasun-politikak egitura estankoetan banatzen zituzten eredu tradizionalek erakutsi dute ez direla eraginkorrak gaur egungo arriskuen konplexutasunari aurre egiteko. Donostiak ezin du 2040. urterako estrategia diseinatu, herritarren segurtasuna eta babes zibila esparru bereizi eta independente gisa ulertuta. Europako abangoardiak segurtasun integrala izeneko ikuspegi holistiko eta zeharkakoa erabiliz definitzen du hiri-segurtasuna gaur egun, non delituaren aurreko erantzunaren eta larrialdi fisikoaren kudeaketaren arteko bereizketa klasikoa lausotu egiten den, herritarrari babes bakarra emateko.

Funtsezko bi dimentsio operatiboren koexistentzia harmonikoaren bidez egituratzen da eredu integratu hori. Alde batetik, ordena publikoa zaintzeaz, delitu-jarduera prebenitzeaz, bizikidetza-araudiak betetzen direla ziurtatzeaz eta espazio fisiko eta birtualean askatasuna bermatzeaz arduratzen da herritarren segurtasunaren ardatza, eta lan horien eskumena Udaltzaingoari eta Ertzaintzari dagokie. Bestalde, modu baliokidean eta maila estrategiko berarekin, babes zibilarren eta larrialdien kudeaketaren ardatza ingurumen-, klima-, teknologia- edo istripu-arriskuak identifikatu, arindu eta erantzutera bideratuta dago, pertsonen osotasuna eta hiriko azpiegituren jarraitutasuna bermatzeko. Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzuak eta Babes Zibilak zuzentzen dute lan hori.

Paradigma-aldaketak esan nahi du honako hau ulertu behar dela: hiri bat benetan ez dela segurua, baldin eta, kriminalitate-indize baxuak izanda ere, hiriak muturreko klima-gertaera bat, hornidura-sareen hutsegite sistemiko bat edo mugikortasun-krisi orokor bat jasateko moduko sendotasunik ez badu. Segurtasun integralaren arabera, donostiarren lasaitasuna eta konfiantza babestu beharreko ondasun juridiko gorenara dira, arrisku fisikoaren eta gizarte-gatazkaren faktoreak elkarren artean atzeraelikatzen direla kontuan hartuta. Hiri-degradazioak, klima-zaurgarritasunak eta isolamendu sozialak komunitate-sarea modu bateratuan ahultzen dute. Horregatik, Donostiarra 2040 ereduak segurtasun integrala ez du antolaketa-aukera huts gisa hartzen, baizik eta udal-politika publiko guztietarako nahitaezko egiturazko jarraibide gisa.

3.2 Babesa taldea, zeharkako koordinaziorako tresna

Donostiako Udalaren barne-antolamenduan segurtasun integrala praktikan jartzea ez da asmo-adierazpen bat soilik; aitzitik, lehendik dagoen eta gaitasun estrategiko handia duen arkitektura operatibo baten bidez gauzatzen da: Babesa taldearen bidez. Atalarteko organo hori hiriaren hiri-erresilientziaren nukleo teknikoa da, oztopo burokratikoak gainditu eta erabakiak modu bateratuan hartzeko diseinatu, hain zuzen ere zerbitzu sektorial bakar baten gaitasunen haraindian doazen egoera konplexuei aurre egiteko.

Babesa taldea diziplina anitzeko kidez osatuta dago eta zeharkako izaera du: agente tekniko eta operatibo beraren pean biltzen ditu hiri-kudeaketako funtsezko eragileak: Udaltzaingoa, Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerbitzua, Babes Zibila, Mugikortasun Zuzendaritza, DonostiaTIK erakunde publiko digitala eta Udaleko Zeharkako Zerbitzuen Zuzendaritza. Gaitasunen bat-egite horri esker, hiriak erakunde bakar gisa jardun dezake edozein kontingentziaren aurrean.

Babesa taldearen indarguneak arriskuaren kudeaketaren fase guztietan jarduteko gaitasunean datza. Prebentzio-fasean, analisi-laborategi gisa jarduten du, non gizarte-zaugarritasuneko kartografiak eta arrisku fisikoko mapak gurutzatzen diren, eta aukera ematen du auzoetako esku-hartzeak diseinatzeko, kontuan hartuta bai ingurunearen segurtasuna, bai larrialdietako ibilgailuen ebakuazio- edo irisgarritasun-gaitasuna. Krisia kudeatzeko fasean, Babesa taldea hiriko agente-postu bateratu bihurtzen da, eta bermatzen du erabateko sinkronizazioan funtzionatzen dutela mugikortasunak, Udaltzaingoaaren segurtasun-hedapenak, suhiltzaileen esku-hartze teknikoak eta DonostiaTIK enpresaren euskarri teknologiko eta informatiboak. Tresna operatibo horrek erakusten du erresilientzia ez dela kontzeptu abstraktu bat, baizik eta eguneroko antolaketa-praktika bat duela, Donostia Europako tokiko gobernantzaren lehen lerroan kokatzen duena.

3.3 Hiri-erresilientzia eta aurrea hartzeko gaitasun teknikoa

2040. urteari begira, hiri-erresilientzia ezin da hiri batek hondamendi bat jasan ondoren inpaktu bati aurre egiteko edo normaltasuna berreskuratzeko duen gaitasun pasibo gisa definitu soilik. Gaitasun handiko erresilientzia modernoak nahitaezko trebetasun tekniko bat garatzea eskatzen du: aurre hartze proaktiboa. Donostia erresilientzia operatibo handiko lurralde gisa finkatu behar da, teknologian, plangintza zientifikoa eta prestakuntzan oinarrituta; izan ere, konfigurazio geografikoa du, klima-aldaketaren eraginpean dagoen kostaldeko eta ibaietako ingurune batean dago kokatuta, eta dentsitate handia du jende asko biltzen den aldietan.

Aurrerapen tekniko horrek larrialdien kudeaketa eraldatzea eskatzen du, datuen analisia eta denbora errealeko monitorizazio-tresnak erabiliz. DonostiaTIK entitatearekin lankidetzan jardutea funtsezkoa da puntu horretan, ibai-ibilguen mailak, itsasoko ekaitzek kostaldean duten eragina eta udalerriko azpiegitura kritikoaren portaera etengabe kontrolatuko dituzten ingurumen-sentsoreen sareak hedatzeko. Informazio tekniko horri esker, alerta goiztiarreko sistemak ezar daitezke, gai izango direnak eguraldi txarraren eragina ordu batzuk lehenago aurreikusteko eta babes zibileko baliabideak aktibatzeke, kalte materialak edo giza kalteak gertatu aurretik.

Era berean, hiri-erresilientziak hiriaren eguneroko funtzionamendua bermatzen duten funtsezko zerbitzuen sareak babestea eskatzen du, hala nola ur-hornidura, sare elektrikoa, telekomunikazioak eta hiri-mugikortasunaren ardatz nagusiak. Donostiako etorkizuneko diseinuak kontuan hartu behar ditu azpiegitura horien erredundantzia eta segurtasuna ustekabeko kontingentzien edo kontingentzia teknologikoen aurrean, eta ziurtatu behar du, krisi-egoera larrienetan ere, larrialdi-zerbitzuek gaitasun operatibo erabatekoa dutela. Hala, gertakari kritiko baten ondoren auzo bat berreskuratzeko gaitasuna lehen mailako adierazle tekniko bihurtzen da, eta Udalaren eraginkortasuna neurtzen du, ez ezbeharraren lekura joateko abiaduragatik bakarrik, baizik eta herritarren eguneroko bizitzan normaltasuna berrezartzeko behar den denbora minimizatzen duen adimen estrategikoagatik.

3.4 Autobabesaren kultura: herritarren prestakuntza eta gaikuntza

Hiri-segurtasun integraleko eta hiri-erresilientziako eredu baten azken fasea ez dago larrialdiz-zerbitzuetan, komunitatean bertan baizik. 2040. urterako plangintza estrategikoak kontuan hartu behar du herritar informatuak, prestatuak eta kontzientziatuak direla biziraupen-katearen lehen kate-maila eta udalerrak duen prebentzio-tresnarik eraginkorrena. Udal-zerbitzuek eredu asistentzial huts batetik erantzunkidetasun-eredu baterako trantsizioa gidatu behar dute, non autobabeserako gaikuntza eskubide eta betebeharrak zibiko orokor bihurtuko den.

Auzo bakoitzeko arriskueta egokitutako herritarren prestakuntza-programa egonkorrak diseinatzea eta hedatzea eskatzen du jardun-ildo horrek. Esku-hartzea ezin da informazio-liburuxkak zabaltzera mugatu; aitzitik, tailer praktikoen bidez egituratu behar da kultur etxeetan, auzo-elkarteetan eta hezkuntza-inguruneetan. Herritarrek oinarritzko gaitasunak eskuratu behar dituzte beren ingurunean arrisku teknologikoak edo ingurumenekoak identifikatzen jakiteko, sute-amago baten aurrean lehen esku-hartzeko jarraibideak aplikatzeko, lehen sorospenetako teknikak menderatzeko eta larrialdi kolektiboetan edo istripu handietan ebakutzeko edo konfinatzeko protokoloak zehatz-mehatz ezagutzeko.

Era berean, prebentzio- eta dibulgazio-kanpainen arreta berezia jarri behar dute hiriko kolektibo zaugarrienetan. Adinekoentzako ekintza espezifikoak garatu behar dira, etxeko arriskuak detektatzeko eta etxeko istripuak prebenitzeko, eta ekintza horiek gazteentzako alfabetatze digitalarekin konbinatu behar dira, zibersegurtasunaren eta kontrol-jokabideen prebentzioaren arloan. Segurtasunaren kultura oinarritik igotzean, Donostiarra 2040 ekimenak ezbehar-tasa zuzenean murrizten du, larrialdiko baliabide publikoen erabilera optimizatzen du eta gizarte-sare sendo zein solidarioa finkatzen du, edozein ezbehar fisiko edo bizikidetzaz- ezbeharren aurrean berreskuratzeko gaitasun handia duena.

Bizikidetza komunitarioa eta gizarte-kohesioa auzoetan, segurtasunaren oinarri gisa

4.1 Gatazka txikien desjudizializazioa, auzo-bitartekaritzaren bidez

2040. urterako analisi prospektiboaren arabera, Donostiako bizikidetza-jasangarritasuna ezin da egon sistema judizialaren xurgatze-ahalmenaren mende, ez eta poliziaren esku-hartze erreaktiboaren hazkunde mugagabearen mende ere. Segurtasun integralaren ereduaren arrakastaren oinarria da auzotarrek trebetasuna izatea ezinegonaren edo auzo-gatazkaren faserik goiztiarrenetan horri aurrea hartzeko edo horretan esku hartzeko, komunitateko eguneroko bizitzatik eratorritako tentsio txikiak gatazka handiago bihur ez daitezen, eta, besteak beste, arau-hauste penal edo hiriko liskarretako foku kroniko bihur ez daitezen. Hori lortzeko, hiri-estrategiak auzo-bitartekaritza ezarri behar du ohiko eta lehentasunezko kanal gisa, hain zuzen ere intentsitate txikiko gatazkak konpontzeko.

Gatazka horiek desjudizializatzeko, udal-bitartekotzako zerbitzu irisgarri eta profesionalizatua finkatu behar da, barrutiek eta oinarrizko gizarte-zerbitzuekin erabat koordinatuta. Bitartekaritza ez da ulertu behar aginteari uko egite gisa, baizik eta tokiko gobernantzaren ariketa aurreratu gisa, zeinak erantzukizuna itzultzen baitie gatazkan dauden alderdiei, betiere adituen laguntzarekin, autonomia-erkidegoko legeriak familia-zuzenbidearen eremuan arrakastaz baliozkotu duen ereduaren moduan. Gizarte-sarea elkarriketaren bidez eta elkarrekiko konpromiso lotesleak ezarriz suspertzean, auzoetako liskar-maila murrizten da, eta segurtasun-indarrei eta organo judizialei lan-karga bat kentzen zaie, beren eginkizun nagusiak desitxuratzen dituen gainera, eta polizia-baliabideei aukera ematen die delituaren jazarpenean arreta jartzeko, eta larrialdi-zerbitzuei, berriz, arrisku teknikoa murriztean jarduteko.

4.2 Auzo-elkarteak, bizikidetza-hausturak prebenitzeko sentsore gisa

Donostiarra 2040 proiektuak definitzen duen gobernantza proaktiboak eskatzen du administrazio publikoek entzute aktiborako eta lekuan bertan datuak biltzeko mekanismoak izatea, horien bidez segurtasunik ezaren pertzepzioaren aldaketak identifikatzeko, hain zuzen ere salaketen estatistika ofizialetan islatu aurretik. Prebentzio-arkitektura horretan, tokiko elkarte-sarea eta auzo-elkarteak ezinbesteko aliatu estrategikoak dira, eta hiriko barruti bakoitzeko bizikidetza-hausturen giza sentsore gisa jarduten dute.

Auzo-erakundeek beren kaleetako mikro-dinamikei buruz duten ezagutza sakonari esker, komunitate-kohesioa mehatxatzen duten fenomeno berriak goiz detekta daitezke, hala nola zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen isolamendua, altzari publikoen erabileran gizalegearen kontrako jokabideak egotea, kulturen artean tentsioak agertzea edo hiri-ingurune jakin batzuk materialki narriatzea, egoera horien ondorioz bazterketa-fokuak ager baitaitezke. Udal-

estrategiak bi norabideko komunikazio-kanal egonkorak egituratu behar ditu elkarre horiekin, eta haien ekarpenak departamentuarteko mahai teknikoetan txertatu. Kontua ez da segurtasuna herritarren esku uztea, baizik eta auzo-esperientzia baliozkotzea, ekintza publikoa zehatz-mehatz bideratzeko, hain zuzen ere honako hau bermatzeko: Udaltzaingoaren prebentziozko esku-hartzeak edo arrisku-ikuskapenak komunitateak zaugarritasun soziala edo fisikoa benetan hautematen duen eremuetara bideratzen direla lehenesteko.

4.3 Kolektibo zaugarrien kohesio- eta babes-politikak

Epe luzerako hiri-plangintzaren ikuspegitik, desberdintasun sozioekonomikoa, deserrotzea eta isolamendua egiturazko zaugarritasun-faktoreak dira, zeinek erresilientzia kolektiboa ahultzen duten eta delitu-dinamikak edo gizarte-bazterkeriako dinamikak agertzea errazten duten. Hiri zatikatua, non biztanleriaren sektore jakin batzuek ongizate-proiektu komunetik kanpo daudela hautematen duten, ingurune erabat ez-segurua da. Horregatik, Donostiarra 2040 ereduak herritarren segurtasunerako estrategiaren muinean kokatzen ditu gizarte-kohesiorako politikak, bai eta zaugarritasuna gehien pairatzen duten kolektiboen babes osorako politikak ere.

Ekintza publikoak lehentasuna eman behar die Donostiako egungo eta etorkizuneko egitura demografikoan kritikoak diren lau kolektibori zuzendutako zeharkako esku-hartzeei:

lehenik eta behin, haurrek eta gazteek hezkuntza-, kultura- eta aisialdi-baliabide osasungarriak behar dituzte auzo guztietan, aukera-berdintasuna bermatzeko eta sare sozialetan adierazten diren zaugarritasun digitalaren, jazarpenaren eta kontrolaren forma berriei aurre egiteko.

Bigarrenik, adineko pertsonak erantzun irmo bat behar dute nahi ez den bakardadearen fenomenoari aurre egiteko. Arrisku-faktore horrek, kolektibo horretako pertsonen osasun fisikoari eta mentalari eragiteaz gain, iruzurrak eta etxeko istripuak izateko arriskua areagotzen du, eta larrialdi zibilen aurrean, babesgabetasun-egoeran uzten ditu adineko pertsonak. Hori dela eta, laguntza-zerbitzuak babes zibileko prebentzio-planekin koordinatu behar dira.

Hirugarrenik, ekonomia- edo bizileku-zaugarritasuneko egoeran dauden familiek laguntza komunitario integrala jaso behar dute, lurralde-segregazioko prozesurik gerta ez dadin, eta higiezinaren lege kanpoko usurpazioa gisako arazoaren aurrean ematen den erantzun juridikoa gizarteratzeko eta etxebizitza duina izateko aukerekin koordinatzen dela bermatzeko.

Azkenik, hirira iritsi berri diren pertsonak harrera-kanal argiak izan behar dituzte, baita hizkuntza ikasteko aukerak eta orientabide juridikoa ere, hiriko gizarte- eta lan-sarean erabat integratzen laguntzeko; hala, aurreiritziak, gorroto-delituak, arrazakeria eta xenofobia modu prebentiboan desaktibatzen dira, eta elkarrenganako errespetuaren eta herritarren erantzukidetasunaren kultura sustatzen da.

4.4 Espazio publikoaren gobernantza eta erabilera partekatua

Donostiako espazio publikoa; hau da, bertako plazak, parkeak, hondartzak eta kaleak dira bizikidetzaren kalitatea eta hiriko gizarte-kohesiorako politiken arrakasta ebaluatzeko behin betiko eszenatokia. Hiri-diseinua eta ingurune partekatu horien kudeaketa ezin da irizpide estetikoaren edo sustapen ekonomikoko irizpideen arabera bakarrik izan; aitzitik, espazio komuna planifikatzeko orduan, lurraldea segurua, inklusiboa, irisgarria dela eta diskriminazioaren, bereizketaren eta isolamenduaren aurka blindatuta dagoela bermatu behar da.

2040an Donostia kohesionatu bat nahi badugu, espazio publikoen erabilera partekatua eta belaunaldien artekoa sustatu behar da, bertan aisialdia, auzo-atsedena, merkataritza-jarduera eta kultura-adierazpena modu harmonikoan bizi daitezten. Eremu jakin batzuen degradazioa, lurzoru publikoa ezkutuko moduan pribatizatzea edo ingurune komunitarioak abandonatzea herritarrek kaleetatik kanporatzen dituzten faktoreak dira, horren bidez, gizalegearen kontrako jokabideak agertzen dira eta dinamika gatazkatsuek modu desegokian okupatzen dute espazioa. Udalaren esku-hartzeak integrala izan behar du: kalitate handiko hiri-mantentzea, argiztapen estrategikoa, -emakumeentzako emakumeentzako segurtasunik eza sortzen duten puntu beltzak kentzeko-, arkitektura-oztopoak ezabatzea eta behar handiko auzoetan jarduera komunitarioak programatzea lehen mailako prebentzio-tresnak dira. Espazio publikoa leku seguru eta bizitzat jotzen denean, herritarrek paseatzean eta kaleetan bizitzean egiten duten gizarte-kontrol informala da delinkuentziaren eta herritarren bakearen narriaduraren aurkako lehen oztopo eraginkorra, eguneroko bizitzarako behar den lasaitasuna ziurtatzen duena, alegia.

Deliberazio-prozesurako azken gogoetak

5.

Dokumentu hau erreferentzia analitiko eta kontzeptualeko esparru bat baino ez da, Donostiarra 2040 proiektuaren esparruan hausnarketa eta herritarren ekarpena sustatzeko diseinatua. Segurtasun integrala funtsezko kontzeptua da gizarte egonkor, erresiliente eta kohesionatua eraikitzeko.

Hemen azaldutako gogoetak, jurisprudentzia-diagnostikoak eta segurtasun integralaren ikuspegiak ez dira neurri betearazleen katalogo itxi bat, eta ez dituzte baldintzatzen udal-administrazioari dagozkion antolamendu-, aurrekontu- edo eskumen-erabakiak.

Gobernantza kolaboratiboko foro honetatik ateratako ondorioetatik abiatuta eraikiko da behin betiko hiri-estrategia. Ondoren, Udaleko arloko zuzendaritzei dagokie herritarren proposamenen bideragarritasun teknikoa, materiala eta juridikoa ebaluatzea, sektoreko planetan behar bezala integratzen direla ziurtatuz eta, une oro, indarrean dagoen eskumen-esparrua zorrotz errespetatzen dela bermatuz.

17

00/

**SEGURTASUNA,
BIZIKIDETZA ETA
GIZARTE-KOHESIOA**



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



www.donostia.eus/donostiarra2040